Erref. kodea: LAF-218-190 [10]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Bide, Bernadette: *Oilo gorrixka*

1/

~~Eskoletako~~ haurrentzat

## Oilo gorriska

Oihan baten ondoan bada baratze bat. Baratze hartan bada etxe bat: oilo gorriskaren etxea da. Garbiki eta muntoki atxekitzen ditu sukaldea eta gela. Oilo gorriska etxeko andere ona da: ez da herrauts errestarik muble gainetan. Lore-untzietan, zer lore ederrak eta leihotan, zer erridau pollitak! Plazer bat da, haren etxerat gatea.

Haren laguna, tortoila, etortzen zaio, egun guziez ikusterat.

Tok, tok, tok... jotzen du atean.

Bi lagunek elgarreri musu emaiten dute. Eta zer nahi "Kot, Kot, Kot" eta "ukurru ~~oucouou~~ ukurru ~~oucouou~~, ukurru ~~oucouou~~" aditzen da. Hainbertze gauza hatsemaiten dute erraiteko. Jartzen dira, bat bertzearen parrean. Edaten dute baso arno azukratu bat eta jaten bischotxak. Kontuz hartzen dira eta jostetan dominotan. Edo badakite lana ongi egiten solasean hariz. Tortoila trikotatzen hartzen da. Oilo gorriskak, aldiz, nahiago du josten eta zahar moldatzen ari ~~zaundaan ari~~ da. Hortakotz, ibiltzen du beti, bere zarpan, orratza hariarekin, ditarea eta aisturrak. Beti prest da bertzeri zerbitzu egiterat. Arrimatzen ditu bertzen arropak. Ez da estonatzeko, denak ongi mintzo badira ~~ongi~~ hartaz.

Bainan aseriak, erne atxekitzen baititu bere belarriak, aditzen du egun batez:

→

— Oilo gorriska, zer oilo ona den! Eta ikusi duzue zoin ederra eta zoin pottoloa den.
— Pottoloa, pottoloa, errepikatzen du azeriak. Oh! aie! aie! — pottoloa.
Hara etortzen zaio agorat eta lasterka gaki da bere etxerat. Sartzen da dantzan eta kantuz: "pottoloa, pottoloa arras pottoloa da"
— "Bainan, zer gertatzen zaizu" galdegiten ~~dio~~ dio azeri emaztekiak. Zozotzen ari zare?
— Tra la la! Bada oilo bat oihan baten ondoan Behar den bezalako oilo lodi, lodi bat. Gauen naiz haren atxemaiterat kuxian.
Fite, emazu zaku bat.
— Presta zazu untzi (zego) bat. Hara iakinaraz zazu arrosarazko dugu eta janen gure oilo gorriska!
— Zer azeria zaren! azeri on bat, erraiten daio azeri emaztekiak, bere kontentarekin. Eta emaiten daio zakua.
Azeria, tiro bat bezala badoa. Ikusten du oilo gorriskaren etxea, hurbiltzen da isil isila eta gordetzen arbol baten gibelean.
— ~~cot, cot, cot~~ Memento hartan atea idekitzen da.
— Kot, Kot, Kot adio nere tortoila maitea bihar artio.
— ~~coucou~~ ukurru ~~coucou~~ ukurru, ~~coucou~~ ukurru, adio nere oilo gorriska, bihar artio.
Tortoila airatzen da. Oilo gorriska gaten da egurraren bila egurtegi~~ra~~ bat.
Ordion hup!

2

Azeria salto batean, sartzen da sukaldean arrabotak (~~soinu~~) egin gabe eta gordetzen atearen gibelean.
Oilo gorriskak hartzen du egurra eta sartzen da etxean trankilki.
Bainan, hai!
Azeriak hatxemaiten du oiloa eta sartzen bere zakuan hain fite nun oilo gorriskak ez duen denborarik idekitzeko mokoa (pikoa).
— Hor zaitut, hor zaitut nere oilo gorriska ederra!
Azeriak, korropilo bat egiten du zakuari, emaiten (ezartzen) bizkarrean eta xixetuz gaki da.
Oilo gorriska arrunt zozotua da. Negartzen ari da.
Ez dago geldirik zaku barnean eta igortzen ditu "Kot, Kot, Kot" batzu beldurrez beteak.
Bainan ...... nork adituko du? Nork adituko du? Tortoilak? ———.
Han dago, ez hain urrun, sagar-ondoaren adar baten gainean. Pentsatu du azeriak eremaiten duela oilo gorriska jateko. Haren bihotza punpeka ari ~~da~~ zaio; ikara batek hartu ditu haren hegalak. Ez ditu hause idekitzen ahal.
Azkenean, airatzen da, pusatzen du karrasi ttiki bat eta pausatzen da azeritik ez hain urrun. Salto ttiki batzu egiten ditu bere hegala terrestan, kolpatua balitz bezala.
Tortoil kolpatu bat! Zer xantza!
Egon piltat, nere ttikia. Bada ~~orain~~ oraino, toki bat zuretako nere untzian.

→

Axeriak pausatzen du zakua lurrean eta lasterka gaki da tortoilaren gibeletik.

Uste zuen laister atxemanen zuela tortoila ...

Baina hunek : hop ! berriz salto egiten du eta pausatzen da zonbat urrats urrunxeago.

Hop ! hop ! ... Eta salto eginez, kantatzen du !

" Cukurru , ukurru "

Horrek erran nahi zuen !

" Atxeik kunaia , oilo gorriska , hemen naiz , salba zaite ! "

Fite , fitea , oilo gorriskak hartzen ditu bere zarpatik aixturrak !

Krak , krak pikatzen du zakuaren oiala eta pfult : hara, orai libre da.

Geio emaiten du arri haundi bat zakuan eta berriz josten du fite, fitea – berriz emaiten ditu bere zarpan aixturrak , orratza bere hariarekin eta ditaria , eta laster batean , sartzen da bere etxean.

Axeria ere lasterka ibilki da. Gaizoa, hatsangatua da. Debrukeria ! Aldi huntan, behar dut atxeman animale zikin hori.

Hara, oraikoan hor dut !

Guap ! ... fitxeik !

Tortoila airatu da aski gora ikusteko oilo gorriska sartzen bere etxean.

— Hum ! Zer bazkaria eginen dugun !

Bi axeriak hurbiltzen dira untzitik , idekitzen eta iraurtosten dute zakua ura irakiten ari den gainean.

Arria erortzen da.



Ur irakin guzia ukaiten dute bisaiarat eta hain berze erosten ditu nun eskapatzen diren oihuka oihanerat.

Sekulan ez dira gehiago etorri.

Eta geroztik oilo gorriska eta tortoila bizi dira elgarrekin oilo gorriskaren etxean. Arrunt urus dira.

Bernadette Bibe

# – Haize ttikia –

Goiz batez , haize ttikia jeikitzen da umore onean. Nahi du jostatu. Lanoen ( hedoien) ikustera gaten da.

– Agur , jaun lanoak , etortzen naiz zuekin jostatzera.

• Ez gare etortzen ahal. Gu lanean ari gare.

– Zuek , lanean ?

• Ba

Haizea harritua ( ~~estonatua~~ ) da. Zer lan egiten ahal du lano batek ? Bah ! ganen naiz andere uriarekin jostatzera.

– Agur , andere uria , nahi duzia jostatu nerekin ?

+ Ez naiz jostatzen ahal ; lanean ari naiz ni.

– Zu lanean ?

+ Ba, ba.

– Ardion, nehorekin ez du nahi jostatu nerekin ? Ez lanoek ez eta uriak.

– Norekin jostatuko naiz ? Ah ! badakit : jostatuko naiz basakuarekin ( marmotte )

Basakua lo dago , arbol baten gainean .

Ufatzen du eta harrotzen haren ilea.

→

■ Aaah! Nork atzartzen nau ? (~~tournure d'Ibarruque~~)
– Nik, haize ttikiak. Nahi duzu jostatu nerekin, gordeka (cache-cache)?
■ Bainan, ez naiz jostatzen ahal, lanean ari naiz, ni.
– Zu, lanean? Bainan, beti lo zaude!
■ Lanean ari naiz.
– Ordion, nehorek ez du nahi jostatu nerekin: ez lanoek, ez uriak, ez eta basakulak. Norekin jostatzen ahalko naiz?
Eta haize ttikiak galtzen du bere umore ona. Bainan ikusten du harzaren ~~gulua~~ (ziloa) eta haren kitzikatzera gaki da. Xixetu egiten dio belarrira. Lo zagon.
x Aaah! Nork atzarri nau? (boza lodia)
– Nik, haize ttikiak. Nahi duzu jostatu nerekin, gordeka.
x Ez naiz jostatzen ahal. Lanean ari naiz, ni.
– Zu, lanean?? Beti lo zaude.
x Lanean ari naiz.
– Nehorek ez du nahi jostatu nerekin. Ez lanoek, ez uriak, ez basaku ttikiak, ez harza haundiak. Norekin jostatzen ahalko naiz??
Aldi huntan, haize ttikia arrunt triste da eta zerratzen ~~ditu~~ ditu jarzkan begiak ez nigar egiteko. Idekitzen dituelarik, ikusten ditu arbol haundiak.
– Agur, oihaneko arbolak. Etorri nerekin jostatzera. Ni, izanen naiz denen buruzagia eta zuek kantatu eta dantzatuko duzue nere musikarekin
⊕ Zer galdegiten duzu hor. Lanean ari gare.

4

– Lanean?
⊕ Ba
– Ordion, nehorek ez du nahi jostatu nerekin: ez lanoek, ez uriak, ez basaku ttikiak, ez harza haundiak ez eta oihaneko arbolek
Haizea arrunt triste da orai eta gaten da nigar egitera lano ttiki baten gibelerat.
~~Ekurosk~~ Urroski iduzkia hor da, haize ttikiaren kontsolatzeko.
O Denek egia erran zatuzte (~~tournure d'Ibarruque~~), haize ttikia! denak lanean ari dira.
Lanoak gaten dira itsasorat, han hartzen dute ainitz ur eta gero ~~iseatzen~~ igaiten dira zerurat.
Uriak, ziloa egiten du lanoaken pasatzeko eta erortzen da ~~pikoaren~~ harzen, arbolen eta etxeen gainerat.
Basakuek eta harzek egiten dute lo, negu guziam, indar gehiago izaiteko primaderan.
Arbolek prestatzen ~~dute~~ dituzte bere osto berriak.
– Ordion, iduzkia, nik ere ~~iduzkia~~ ~~primadera~~ prestatzen ahal duta primadera? (udaberria)
O Entzun nezazu haize ttikia, hara zure lana! Behar ~~duzu~~ dituzu pusatu lanoak itsasoari buruz, igatu gora, gora zeruan, igorri uri seortak eta arratsean utziko zaitut egitera musika polit bat arbolen kokarrarazteko
– Oh! milesker, milesker, iduzkia.
Eta arrunt kontent, haize ttikia gan zen, hura ere primaderaren prestatzera.

B.B. (Bernadette Bide)

→

FSC
MIXTO
FSC® C001636